

## Justizia Administrazioa

### VITORIA-GASTEIZKO LEHEN AUZIALDIKO 2 ZENBAKIKO EPAITEGIA

EDIKTUA, titulu judicial bat betearazteko bideratutako 837/03 L2 proceduraren ondoriozkoa. 16669

## Iragarkiak

### Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

#### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA. Iragarkia, «Umeentzako 2005-2006 Gabonetako Parkean Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak jarri nahi duen erakusleku diseinatu, egin eta laguntza teknikoa emateko kontrataua» esleitzeko dena (ICT 13/19/05 expedientea). 16670

## Xedapen Orokorrak

#### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA OSASUN SAILA

### 4619

186/2005 DEKRETUA, uztailaren 19ko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituena.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena, funtsezko tresna da. Izan ere, horren bidez bideratu da osasuna babesteko eskubidea garratu eta aplikatzeko herri agintariek herritarrekin duten konpromisoa.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legean azaltzen diren berrikuntzek egitura eta antolamenduari lorturik dauden alderdiei eragiten die nagusiki; halaber, beste printzipio batzuk sartu dira, batetik, profesional-

## Administración de Justicia

### JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 2 DE VITORIA-GASTEIZ

EDICTO dimanante del procedimiento L2 n.º 837/03 seguido sobre ejecución de título judicial. 16669

## Anuncios

### Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

#### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

CONCURSO PÚBLICO. Anuncio para la adjudicación del contrato que tiene por objeto «el diseño, ejecución y asistencia técnica de un stand del Departamento de Industria, Comercio y Turismo en el Parque Infantil de Navidad 2005-2006» (Expediente: ICT 13/19/05). 16670

## Disposiciones Generales

#### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 4619

DECRETO 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los Puestos Funcionales del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio vasco de salud.

La Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi constituye el instrumento fundamental por el que se articula el compromiso de los poderes públicos con la ciudadanía respecto al desarrollo y aplicación del derecho a la protección de la salud.

Las innovaciones que se presentan en la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi inciden principalmente en los aspectos vinculados a la estructura y organización, así como en la introducción de nuevos principios

tasuna aintzatesteko, eta bestetik, kultura klinikoa eta kudeaketaren cultura elkarrengana hurbiltzeko.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legearen 28. artikuluan, arau komunetatik bigarrenean ezartzen denez, legean aurreikusitako araubide juridikoari lotuta dauden langileak sailkatzeko tresnak izango dira titulazio-taldea, lanbide-taldea, kategoría eta lanpostu funtzionala. Lanpostu funtzionala deiturikoa langileen antolamendu, sustapen eta garapen integralera bideratuta dago, eta funtsezko elementu bilakatu da zerbitzu-erakundeetako egiturazko plantillak sailkatzerakoan.

Ondoren, bigarren arau horretan, titulazio-taldea, lanbide-taldea eta lanpostu funtzionala kontzeptuak definitzen dira, eta 6. idatz-zatian jasotzen denez, lanpostu funtzionalak kategorien arabera artikulatuko dira erregelamendu-bidez, kontuan hartuta lanpostuan aritzeko behar den lanbide-profila eta lanpostu horietan sartzeak dakartzan ordainketa-ondorioak.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legean jasotako aurreikuspenak betez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko plantillaren egitura osatuko duten lanpostu funtzionalak prestatu eta argitaratuko dira dekretu honen bitartez. Horretarako, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 12.5 b) artikuluaren arabera, lanpostu funtzionalak sailkatzeko irizpideak zehaztuko dira, funtsezko elementuak baitira, aurrez prestatu beharrekoak, lanpostuak ezarri eta, ondoren, kudeatzeko (255/1997 Dekretua: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren entitate Publikoaren Estatutuak ezarri zituen).

Halaber, beharrezkoa da kontuan hartzea osasun arloko erakundeak oso ingurune dinamiko batean murgilduta daudela, eta ingurune hori etenik gabe ari dela bilakatzen eta garatzen, eta horrek zuzen-zuzenean eragiten du antolamenduaren egituran. Izen ere, erakundeok behar bezain azkar erantzun behar izaten diente osasun-zerbitzuen gaineko gizarte-eskariei, gero eta handiagoa den asistentzia-presioari eta berrikuntza teknologikoei, arian-arian ezartzen ari baitira asistentziaren eta kudeaketaren eremuan. Horregatik, Entitateko lanpostu funtzionalak zehazteaz gain, lanpostuak berrikusteko eta eguneratzeko mekanismoak ere sartu ditugu, aurretik ezarritako sailkapen-irizpideetan oinarrituta.

Hemen proposatzen den oinarrizko egitura Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legean ezarritako arau-esparruan garatuko da gero, Entitate publikoaren Egiturazko Plantillari dagokionez. Plantilla Administratzaio Kontseiluak onartu beharko du, betiere, Jaurlatzaren Kontseiluak lanbide-taldeen arabera finkatu-tako lanpostuen gehienezko kopuruaren barruan.

Lehenik, Administratzaio Kontseiluak zerbitzu-erakundeetako egiturazko plantillak onartu behar ditu lanbide-taldeen arabera. Gero, erakundeetako zuzendaritzek zerbitzu-erakunde bakotzeako plantilla funtzionala onartzeko ebaezpena hartuko dute, dezentralizazio eta

que refuercen el reconocimiento profesional y el acercamiento de las culturas clínica y de gestión.

La Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi, en su artículo 28, norma común segunda, establece asimismo que los instrumentos de clasificación del personal sujeto al régimen jurídico previsto en la propia Ley serán el Grupo de Titulación, el Grupo Profesional, la Categoría y el Puesto Funcional que se desempeñe. El señalado Puesto Funcional, orientado a la organización, promoción y desarrollo integral del personal, se revela como el elemento clave en la clasificación de las plantillas estructurales de las distintas Organizaciones de Servicios.

A continuación, en la señalada norma segunda se definen los conceptos de Grupo de Titulación, Grupo Profesional y Puesto Funcional, instando en su apartado 6.º a que reglamentariamente se articulen los diferentes Puestos Funcionales por categoría, definiendo el perfil profesional para su desempeño y los efectos retributivos que el acceso a cada uno de ellos conlleve.

En cumplimiento de las previsiones contenidas en la citada Ley de Ordenación Sanitaria de Euskadi, se procede ahora a la elaboración y publicación de los diferentes Puestos Funcionales en los que se deberá estructurar la plantilla de Osakidetza-Servicio vasco de salud, para lo cual, y en función de lo dispuesto en el Artículo 12.5 b) del Decreto 255/1997, de 11 de noviembre, por el que se establecen los Estatutos Sociales del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, se especifican los criterios considerados para la clasificación de los Puestos Funcionales, elementos previos fundamentales para su establecimiento y posterior gestión.

Igualmente, es necesario tener en cuenta que las organizaciones sanitarias se encuentran inmersas en un entorno muy dinámico en permanente evolución y desarrollo, lo cual incide directamente en su estructuración organizativa, al verse obligadas a responder con la agilidad precisa a las nuevas demandas sociales de servicios sanitarios, a la presión asistencial creciente y a las innovaciones tecnológicas que de manera paulatina se van implantando en el ámbito asistencial y de gestión. Es por ello que, junto con la determinación de los Puestos Funcionales del Ente se incluyen, fundamentados en los criterios de clasificación previamente establecidos, los mecanismos para su revisión y actualización.

La estructura básica aquí propuesta se desarrollará posteriormente en el marco regulador establecido por la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi, en relación con la Plantilla Estructural del Ente Público, que deberá ser aprobada por su Consejo de Administración, dentro de los límites definidos por el número máximo de efectivos según Grupos Profesionales fijado por el Consejo de Gobierno.

Una vez aprobadas por el Consejo de Administración las Plantillas Estructurales por Grupo Profesional de las distintas Organizaciones de Servicios, las Direcciones de éstas, basándose en los principios de descentralización y autoorganización reconocidas en la propia Ley de

auto-organizazio printzipioetan oinarritura, zeintzuk Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legean bertan aitortzen baitira.

Azkenik, dekreto honetan zehazten den lanpostu funtzionalen zerrendak oinarri zehatzak ezartzen ditu Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Zuzenbide Pribatuko Entitate Pribatuaren antolamendu-egitura zehatz eta arin kudeatu ahal izateko. Gainera, aukera ematen du entitatearen barruko egiturak razionalizatzeko eta antolatzeko eta entitatea osatzen duten zerbitzu-erakundeetako egiturazko plantillak zehazteko.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Osasun sailburuaren proposamenez, nahitaezko txostenak aztertu ondoren eta Euskadiko Aholk Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko uztailaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### *1. artikulua.*— Helburua.

Dekreto honen helburua lanpostu funtzionalak zehaztea da, lanpostu horietan oinarritura antolatu beharko baita Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate publikoko egiturazko plantilla. Izan ere, lanpostu horiek langileak sailkatzeko tresnak dira, titulazio-talde, lanbide-talde eta kategoriarekin batera. I. eranskinean dago dekreto honen bidez onartutako lanpostu funtzionalen zerrenda.

##### *2. artikulua.*— Aplikazio-eremuia.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoko egiturazko plantillari aplikatuko zaio dekreto hau. Plantilla, bestalde, Administrazio Kontseiluak erakunde bakoitzerako lanbide-taldeen arabera onartutako lanpostu kopuruak osatuko du, Jaurlaritzaren Kontseiluak urtero onartzan duen lanbide-taldeen araberako gehieneko lanpostu-kopuruaren barruan.

Dekreto honen I. eranskinean jasotako lanpostu funtzionalen zerrendaren arabera sailkatuko da zerbitzu-erakunde bakoitzeko egiturazko plantilla, eta hortik aterako da dagokion plantilla funtzionala.

##### *3. artikulua.*— Lanpostu funtzionalaren definizioa.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan, bigarren arauaren 6. puntuaren ezartzen denez, lanpostu funtzionalak sailkapen-lanabesak dira langileen antolamendua, sustapena eta garapen integrala lortzeko.

Dekreto honen ondorioetarako, hau jotzen da lanpostu funtzionaltzat: eremu funtzional bat edo gehiagorri dagokionez elementu komun bat duten postuen taldea; entitate publikoaren egituraren dagoen beste edozein taldetik bereizita dago, lanpostuan aritzeko lanbide-eskakizunei dagokienez edo hartzen dituzten erantzukizun hierarkiko edota kudeaketa-erantzukizunei dagokienez.

Ordenación sanitaria de Euskadi, procederán a emitir la correspondiente Resolución aprobando la Plantilla Funcional de cada Organización de Servicios.

En conclusión, la Relación de Puestos Funcionales definida en este Decreto establece las bases precisas para una gestión rigurosa y dinámica de la estructura organizativa del Ente Público de Derecho Privado Osakidetza-Servicio vasco de salud, y permite la racionalización y ordenamiento de sus estructuras internas y la definición de las plantillas estructurales de las diferentes Organizaciones de Servicios que lo componen.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Sanidad, vistos los informes preceptivos, de conformidad con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, previa deliberación y aprobación en el Consejo de Gobierno en su sesión del día 19 de julio de 2005,

#### DISPONGO:

##### *Artículo 1.*— Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto la determinación de los Puestos Funcionales en base a los cuales se deberá ordenar la plantilla estructural del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, constituyendo los mismos uno de los instrumentos de clasificación del personal, junto con el grupo de titulación, el grupo profesional y la categoría. La relación de Puestos Funcionales aprobada por este Decreto se contiene en el anexo I del mismo.

##### *Artículo 2.*— Ámbito de aplicación.

El presente Decreto será de aplicación a la Plantilla Estructural del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud, constituida por el número de efectivos por grupo profesional en cada organización aprobada por el Consejo de Administración, dentro del límite máximo de efectivos por grupo profesional aprobado anualmente por el Consejo de Gobierno.

La Plantilla Estructural de cada Organización de Servicios se clasificará conforme a la Relación de Puestos Funcionales recogida en el anexo I de este Decreto, dando lugar a la Plantilla Funcional correspondiente.

##### *Artículo 3.*— Definición de Puesto Funcional.

De conformidad con el artículo 28, norma segunda, 6, de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi, los Puestos Funcionales se constituyen como el instrumento de clasificación del personal orientado a la organización, promoción y desarrollo integral del personal.

Se entiende por Puesto Funcional, a los efectos del presente Decreto, toda agrupación de efectivos por razón común respecto a uno o más ámbitos funcionales, diferenciada de cualquier otra existente en el conjunto de la estructura del Ente Público en cuanto a las exigencias de requerimientos profesionales para su desempeño o a las responsabilidades jerárquicas y/o de gestión que se asuman.

Definizio hori aintzat hartuta, lanpostu funtzionalak bi modutan ezarriko dira: kontuan hartuta lan beizgarriak egitea, lanbideari dagozkionak, eta lan horietarako gaitasuna kategoria bakoitzean sartzeko eskatzen den titulazioak ematen du; edo kontuan hartuta kategoriaren berezko egitekoen barruan eta entitateko egituraren batean duen destinoaren barruan, erantzukizun funtzional espezifiko bat edukitzea.

#### *4. artikulua.- Irizpide bereizgarriak.*

Lanpostu funtzionalak bereizteko irizpideak hauek izango dira:

1.- Zeregin bereiztuak, lanbideari dagozkion lanen araberakoak; lanbidean jarduteko gaitasuna dagokion tituluak emango du.

2.- Zeregin bereiztuak, kategoriaren eta destinoaren arabera dagozkion berezko egitekoen barruan, erantzukizun funtzionalaren maila espezifika kontuan hartuta.

Erantzukizun funtzional horrek eskakizun bereizgarriak jasotzen ditu honako hauei dagokienez:

a) Jakintza espezializatuak: jakintza espezializatu teknikoak edota praktikoak eskatzen dira, dagokion lanbide-taldeak eta kategoriak eskatzen duten prestakuntza osatzen edota mugatzen dutenak.

b) Hierarkia-erantzukizuna: giza-taldeak antolatu, gainbegiratu edota koordinatzeko egitekoak hartu behar dira.

c) Kudeaketa-erantzukizuna: helburuak eta helburuok garatzen diharduten baliabideak —giza-baliabideak nahiz materialak— planifikatu, programatu, segitu eta kontrolatzeko egitekoak hartu behar dira.

#### *5. artikulua.- Identifikazioa.*

Lanpostu funtzionalak alderdi hauen arabera identifikatu eta bereiztuko dira:

1.- Langileak sailkatzeko moduaren identifikazioa.

2.- Eskatzen den lanbide-profila.

3.- Betetzeako modua.

4.- Izendatutako ordainketa-ondorioak.

#### *6. artikulua.- Langileak sailkatzeko moduaren identifikazioa.*

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan eta hirugarren xedapen gehigarriaren 4. paragrafoan aurreikusiten denarekin bat etorriz, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoa dauden lanpostu funtzionalak, izenaz gain, sailkapen-tresna hauen bidez identifikatuko dira:

a) Titulazio-taldea: langileak sailkatzen ditu, sartzeko eskatzen den titulazio-mailan oinarrituta.

b) Lanbide-taldea: langileak sailkatzen ditu, lanbideko gaitasunak eta prestazioaren berezko lanen eduki espezifika multzo bateratuz.

Acorde a dicha consideración, los Puestos Funcionales se establecerán en razón del desempeño de tareas diferenciales, propias de la profesión para cuyo ejercicio habilite la titulación exigida para el acceso a cada categoría, o en razón del desempeño de un nivel específico de responsabilidad funcional dentro de las funciones propias de la categoría y el destino en alguna de las estructuras del Ente.

#### *Artículo 4.- Criterios de Diferenciación.*

Los criterios considerados para la diferenciación de los distintos Puestos Funcionales se corresponden con los siguientes:

1.- Ocupaciones diferenciadas en base a las tareas propias de la profesión para cuyo ejercicio habilite la titulación correspondiente.

2.- Ocupaciones diferenciadas en base al nivel específico de responsabilidad funcional ejercido dentro de las funciones propias de la categoría y el destino.

Dicha Responsabilidad Funcional contempla exigencias diferenciales con relación a:

a) Conocimientos especializados: exigencia de conocimientos especializados técnicos y/o prácticos que complementan y/o delimitan la formación exigida por el grupo profesional y la categoría correspondiente.

b) Responsabilidad jerárquica: asunción de funciones de organización, supervisión y/o coordinación de equipos humanos.

c) Responsabilidad de Gestión: asunción de funciones de planificación, programación, seguimiento y control de objetivos y recursos, humanos y/o materiales, implicados para el desarrollo de los mismos.

#### *Artículo 5.- Identificación.*

Los Puestos Funcionales vendrán identificados y caracterizados en relación con los siguientes aspectos:

1.- Identificación en términos de Clasificación del Personal.

2.- Perfil Profesional requerido.

3.- Modo de provisión.

4.- Efectos retributivos asignados.

#### *Artículo 6.- Identificación en términos de Clasificación del Personal.*

De conformidad con lo previsto en el artículo 28 y en el apartado 4 de la Disposición Adicional Tercera de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi, los Puestos Funcionales existentes en el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud vendrán identificados, además de por su denominación, por los siguientes instrumentos de clasificación:

a) Grupo de Titulación, que constituye el instrumento de clasificación del personal basándose en el nivel de Titulación exigido para el ingreso.

b) Grupo profesional, que constituye el instrumento de clasificación del personal sobre la base del agrupamiento unitario de las aptitudes profesionales y contenido específico de las tareas propias de la prestación.

c) Kategoria: eskatzen den titulazio espezifikoaren arabera sailkatzen ditu langileak.

Lanpostu funtzionalak, dituzten ezaugarriak kontuan hartuta, lanbide-talde eta kategoria bati edo gehiagorri atxikita egon daitezke; arau honen I. eranskinean zehatzuko da hori.

#### 7. artikulua.— Eskatzen den lanbide-profila.

Lanpostu funtzional bakoitzak lanpostuan jarduteko eskatzen den lanbide-profila izango du. Honako hauek dira osagaiak:

a) Lanpostuan aritzeko eskatutako titulazioa edo titulazioak, eta behar izanez gero, jakintza eta trebetalun bereziak, lanpostuaren eduki teknikoa eta bereizia kontuan hartuta.

b) Lanpostuan aritzeko eskatzen den esperientzia, alegia, jatorrizko kategorian lanean egindako urte kopurua.

c) Hizkuntza-eskakizuna: martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan finkatutako irizpideen arabera zehatzuko da (67/2003 Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko). I. eranskinean izendatutako eskakizunak aldatu egin daitezke, arau horretan euskararen erabilerari buruz aurreikusten diren planak garatu ahala.

#### 8. artikulua.— Betetzeko modua.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legearen 28. artikuluan, hirugarren arau komunean jasotzen diren sistemen bidez beteko dira lanpostu funtzionalak, egitekoak nolakoak diren kontuan hartuta dekretu honen I. eranskinean zehazten denari jarraituz.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak arautuko du lanpostuak betetzeko sistema, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan finkatutako printzipio orokorrekin bat etorri.

#### 9. artikulua.— Izendatutako ordainketa-ondorioak.

Lanpostu funtzional batera joateak lanpostu horri izendatutako ordainketa-ondorioak dakartza. Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legean eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan araututako kontzeptuen arabera finkatuko da ordainketa-egitura. Diri-zenbatekoak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan ordainketen alorreko eskumenak dituen organoak ezarriko ditu.

#### 10. artikulua.— Lanpostu funtzionalak ezartzea.

Dekretu honen bidez lanpostu funtzionalak zehaztu ondoren, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Entitate Publikoko zerbitzu-erakunde bakoitzak bere plantilla funtzionala onartuko du zuzendari gerentearen ebazpen baten bidez. Plantilla funtzionaltzat, bestalde, hau hartzen dugu: zerbitzu-erakunde batean lanpostu funtzionalen arabera dauden postuen kopurua.

c) La Categoría, que constituye el instrumento de clasificación del personal basado en la Titulación específica requerida.

Los puestos funcionales, atendiendo a sus características podrán, en su caso, estar adscritos a uno o varios grupos profesionales y categorías, cuya concreción se realizará en el anexo I de la presente norma.

#### Artículo 7.— Perfil Profesional requerido.

Cada Puesto Funcional llevará aparejado el correspondiente Perfil Profesional requerido para su desempeño, constituido por:

a) La Titulación o Titulaciones y, en su caso, los conocimientos y destrezas específicas requeridas para su desempeño, en función del contenido técnico y particularizado del puesto.

b) La Experiencia, entendida como número de años de ejercicio en la categoría de procedencia, requerida para su desempeño.

c) Perfil Lingüístico, cuya determinación se hará conforme a los criterios fijados en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de Normalización del Uso del Euskera en Osakidetza-Servicio vasco de salud. Los perfiles asignados inicialmente en el anexo I podrán ser modificados conforme se desarrolleen los planes de uso de Euskera previstos en la citada norma.

#### Artículo 8.— Modo de provisión.

Los Puestos Funcionales podrán ser provistos mediante los sistemas previstos en el artículo 28, norma común tercera de la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi conforme se determina en el anexo I del presente Decreto en atención a la naturaleza de sus funciones.

El Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud regulará el sistema de provisión de acuerdo con los principios generales fijados en la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi y demás normas aplicables.

#### Artículo 9.— Efectos retributivos asignados.

El acceso a cada puesto funcional llevará aparejado los efectos retributivos asignados al mismo, fijándose la estructura retributiva conforme a los conceptos regulados en la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi y demás normas de aplicación, y cuyos importes se establecerán por el Órgano competente en materia retributiva de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

#### Artículo 10.— Establecimiento de Plantillas Funcionales.

Determinados los Puestos Funcionales a través del presente Decreto, cada Organización de Servicios del Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud aprobará mediante Resolución del Director Gerente su Plantilla Funcional, entendida ésta como el número total de efectivos por Puesto Funcional existentes en el ámbito de una Organización de Servicios.

Administrazio Kontseiluak Erakunderako onartutako egiturazko plantillak mugatuko du plantilla funtzionalen postu kopurua. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoa osatzen duten zerbitzu-erakunde guztietai lanbide-taldeen arabera dauden postuek osatzen dute egiturazko plantilla.

Plantilla funtzionala prestatzeko prozeduran langileen ordezkariek parte hartzea bermatu beharko da, ordezkaritza-organoei buruzko araudian eta, egonez gero, langileen lan-baldintzak arautzen dituzten erabakietan ezarritakoarekin bat etorriz.

**11. artikulua.**— Eraginkortasuna, argitalpena eta publizitatea.

Zerbitzu-erakundeetako plantilla funtzionalak onartzeko ebaZenak jendaurrean jarriko dira Erakundeko iragarki-tauletan. Horretaz gain, horien berri ahalik eta ondoen emateko, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Intranet Korporatiboaren bidez ere argitaratuko dira.

Aurreko paragrafoan adierazitako argitalpenaz gain, langile guztiei banan-banan jakinaraziko zaie zein lanpostu funtzionali atxikita dauden.

Plantilla funtzionala onartzeko ebaZenek argitaratzen diren egunaren bihamarunean emango dituzte ondorio juridikoak eta ekonomikoak. Gerta liteke, ordea, ebaZen horietan beste epe batzuk ezartzea.

**12. artikulua.**— Lanpostu funtzionalak aldatzea.

Zerbitzu-erakundeetako plantilla funtzionaletan sartutako postuak aldatu egin daitezke lekualdatze, amortizazio eta plantilla funtzional horietako postuak sortzearen ondorioz.

1.— Lekualdatzea. Zerbitzu-erakundeetako postuak leku aldatu daitezke zerbitzu horien artean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebaZen baten bidez. Hori, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legearen 28. artikuluan, hirugarren arau komunaren seigarren paragrafoan, ezarritako irizpide eta bermeen arabera egin beharko da.

2.— Postuak amortizatu eta sortzea. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko organo eskumendunak oro har finkatutako irizpideei eta araei lotuz sortuko dira postu berriak.

2.1.— Plantilla funtzionalean aldaketak egiten badira eta horien ondorioz zerbitzu-erakundeko egiturazko plantillan ezer aldatzen ez bada, erakundeko zuzendari-gerenteak onartu beharko du ebaZen baten bidez.

2.2.— Plantilla funtzionalean aldaketak egiten badira eta horien ondorioz zerbitzu-erakundeko egiturazko plantilla aldatzen bada, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak aztertu eta onartu

El número de efectivos de las Plantillas Funcionales vendrá limitado por la Plantilla Estructural aprobada por el Consejo de Administración para la Organización, constituida por el total de efectivos por Grupo Profesional del conjunto de las Organizaciones de Servicios que integran el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En el procedimiento de elaboración de la plantilla funcional deberá garantizarse la participación de la representación del personal de acuerdo con lo establecido en la normativa sobre órganos de representación y, en su caso, en los acuerdos reguladores de las condiciones de trabajo del personal.

**Artículo 11.**— Efectividad, publicación y publicidad.

Las Resoluciones por las que se aprueban la Plantilla Funcional de cada Organización de Servicios serán hechas públicas mediante su exposición en los tablones de anuncios de la Organización. Igualmente, y a fin de facilitar su conocimiento, se harán públicas a través de la Intranet Corporativa de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Junto a la publicación prevista en el párrafo anterior, se procederá a la notificación individualizada a cada trabajador del puesto funcional al que se encuentra adscrito.

Las Resoluciones de aprobación de la Plantilla Funcional surtirán efectos jurídicos y económicos a partir del día siguiente al de su publicación salvo que en las mismas se establezcan plazos diferentes.

**Artículo 12.**— Modificación de las Plantillas Funcionales.

Los efectivos incluidos en las Plantillas Funcionales de las distintas Organizaciones de Servicios, podrán ser objeto de modificación mediante traslado, amortización y creación de alguno de los efectivos pertenecientes a dichas Plantillas Funcionales.

1.— Traslado. Los efectivos pertenecientes a las distintas Organizaciones de Servicios podrán ser objeto de traslado entre las mismas mediante Resolución del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de Salud, conforme a los criterios y garantías establecidos al efecto en el artículo 28, norma común tercera, apartado sexto de la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi.

2.— Amortización y creación de efectivos. La creación de nuevos efectivos estará sujeta a los criterios y normas fijados con carácter general por el Órgano competente de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.1.— Las modificaciones de Plantilla Funcional que no conlleven alteración de la Plantilla Estructural de una Organización de Servicios serán aprobadas por Resolución del Director-Gerente de la misma.

2.2.— Las modificaciones de Plantilla Funcional que impliquen variación de la Plantilla Estructural de una Organización de Servicios estarán sujetas a la consideración y aprobación del Consejo de Administración de

beharko du. Eta Entitate Publikorako lanbide-taldeen arabera ezarritako gehienezko postu-kopurua aldatzen bada, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu beharrekoa izango da.

Aldaketaren berri eman beharko zaie aldatutako lanpostuan jarduten duten langileei.

Lehiaketa bidez edo aukerako izendapenez lortutako posturen bat kentzen bada, postu horretan zegoen langile finkoa kategoria bereko beste postu bati atxikiko zaio behin-behingoz. Lanpostu hori, ahal izanez gero, kendutako lanpostuaren osasun-barruti berekoa izango da, harik eta beste bat behin betiko hartzen duen arte.

Aurreko paragrafoko langileek egiten den hurrengo lehiaketan lehentasunezko eskubidea izango dute, behin bakarrik, kendu den lanpostuaren kategoria bereko lanpostu hutsak, herri berean daudenak, betetzeko.

Baldin eta lanpostu berriari izendatutako ordainketak kendutako lanpostuak zituenak baino txikiagoak badira, langileei osagarri iragankor bat emango zaie ordainketa-aldeengatik, eta parte hartzeko aukera duten lehenengo lehiaketa ebatzi arte jasoko dute.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lebenengoa.**— I. eranskinean zerrendatutako lanpostu funtzionalak parekatzeko eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua entitate publikoan egun indarrean dauden ordainketa-kategoriekkin eta taulekin baliokidetze, II. eranskinera jo.

**Bigarrena.**— Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebaZen baten bidez integratuko dira Kupo eta Eskualdeko langileak eta toki-osasuneko funtzionarioak Zerbitzu Hierarkizatuetan. Hona hemen irizpide orokorrak:

1.— Kupo eta Eskualdeko langileak maiatzaren 17ko 180/1994 Dekretuaren bidez integratuko dira (180/1994 Dekretua: osasun alorreko kupoko langileak Osakidetzako osasun erakundeetako zerbitzu hierarkizatuetan sartzeko eskaintzaren baldintzak arautzen ditu).

2.— Taldeko buruaren lanpostua hierarkizatu egiten denean edo hutsik geratzen denean, hierarkizazio-irizpide horiek kupoko langile fakultatibo laguntzaileei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta lanpostuan jarduteko ezinbestekoak diren titulazioari eta espezialitateari buruzko betekizunak konplitzen badituzte. Dena dela, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko organo esku-mendunek zehaztutako antolamendu-irizpideei lotu beharko zaie hierarkizazioa.

3.— Toki-osasuneko funtzionarioak uztailaren 30eko 209/1990 Dekretuan jasotako mekanismoen arabera integratuko dira (209/1990 Dekretua: Osakidetza-Euskal

Osakidetza-Servicio vasco de salud, debiendo ser aprobados por el Consejo de Gobierno si los mismos suponen alteración del número máximo de efectivos por Grupo Profesional establecido para el Ente Público.

Se deberá notificar dicha modificación a los trabajadores que viniesen desempeñando el Puesto modificado.

El personal fijo que cese en su puesto como consecuencia de la supresión de un puesto obtenido en concurso o en una convocatoria de libre designación será adscrito al desempeño provisional de otro puesto de trabajo propio de su categoría. Este puesto será preferentemente del mismo Área de Salud del puesto suprimido, en tanto no obtenga otro con carácter definitivo.

El personal del apartado anterior tendrá derecho preferente a proveer en el siguiente concurso que se celebre, y por una sola vez, las vacantes existentes en la misma localidad que fueran de la misma categoría del puesto objeto de supresión.

Cuando las retribuciones asignadas al nuevo puesto fueran inferiores a las del suprimido, el personal percibirá un complemento transitorio por la diferencia, que se mantendrá hasta la resolución del primer concurso en que pueda participar.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**— La equiparación entre los distintos Puestos Funcionales relacionados en el anexo I y su equivalencia con las tablas y categorías retributivas vigentes en la actualidad en el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud se recoge en el anexo II.

**Segunda.**— La Integración en los Servicios Jerarquizados del Personal de Cupo y Zona y del Personal Funcionario de la Sanidad Local se llevará a efecto mediante Resolución del Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, bajo los siguientes criterios generales:

1.— La integración del Personal de Cupo y Zona se realizará conforme a los criterios establecidos en el Decreto 180/1994, de 17 de mayo, por el que se regulan las condiciones de Oferta de Integración en los Servicios Jerarquizados de las Instituciones Sanitarias de Osakidetza-Servicio vasco de salud al Personal Sanitario de Cupo.

2.— Igualmente serán aplicables dichos criterios de jerarquización al personal Facultativo Ayudante de Cupo si, reuniendo los requisitos de titulación y especialidad necesarios para el desempeño del puesto, el puesto de Jefe de Equipo se hubiera jerarquizado o quedara vacante. En todo caso la jerarquización quedará sujeta a los criterios organizativos determinados por los Órganos competentes de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

3.— La Integración de Personal Funcionario de la Sanidad Local se efectuará conforme a los mecanismos contenidos en el Decreto 209/1990, de 30 de julio, por el

Osasun Zerbitzurako lanean diharduten mediku, praktikante eta emaginen kidegoei atxikita dauden Toki Osasuneko Funtzionario Teknikoen Lehen Mailako Atentzioko Ekipoetan sartzea arautu zuen).

**Hirugarrena.**— Baldin eta lanpostu funtzional bat lanbide-talde bira edo gehiagora irekita badago, lanbide-taldeen arabera gehienezko postu-kopurua zehazteko soil-soilik, goragoko lanbide-taldean sartutakotzat joko da, eta titulazio-maila berekoak badira, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko Legearen 4. xedapen gehigarrian jarritako hurrenkerari dagokiona.

**Laugarrena.**— II. eranskinean jasotako baliokidetzen arabera I. eranskinean jasotako lanposturen batekin parekatu ez den lanpostu funtzional batean dauden langile finkoek aukera izango dute beren titulazio-taldeira irekita dagoen lanpostu funtzional bati atxikitzeo; horretarako, ordea, lanpostu horretan jarduteko beharreko diren betekizunak konplitu beharko dituzte. Horrelakoetan, aukeratu duten lanpostuaren kategorian sartuta geratuko dira.

**Bosgarrena.**— Ofizioz, lanpostu funtzionalak dekretu honen bidez onartutako sailkapenaren arabera egokituko dira, hain zuen ere, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren egiturazko plantillako lanpostuak betetzen dituzten langile finkoen eta bitarteko lanpostuak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administracioko kidegoetako karrerako funtzionarioek betetzen dituztenak edo beste herri-administrazio batzuetatik transferitutakoena ere.

Egokitzapen hori banan-banan jakinaraziko zaie, eta Antolamendu Sanitarioari buruzko Legean eta dekretu honetan araututako sailkapen-irizpideei jarraituz egin beharko da.

Baldin eta lanpostu funtzionala egokitzearen ondorioz orain arte jasotzen zituen ordaintketa finkoak eta aldizkakoak txikiutu egiten bazaizkio, lanpostuaren titularrak eskubidea edukiko du ordaintketa-aldearengatik osagarri pertsonal eta iragankor bat jasotzeko, lanpostu horretan egoten den artean. Osagarri pertsonal eta iragankor hori ez da xurgatailea izango, nahiz eta ondoko aurrekontu-ekitaldietaan aplikatzekoak diren eguneratzeak egingo zaizkion.

**Seigarrena.**— Gerta liteke titulazio ofizial berriak onartzea dekretu honen bidez sortutako lanpostu funtzionalen bati dagozkion egitekoak betetzeko. Horrelakorik gertatuz gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Administrazio Kontseiluari ahalmena ematen zaio titulazio horiek lanpostuan jarduteko gaitasuna ematen duten titulazioen artean sar ditzan, betiere kategoria berri bat sortu behar ez bada.

#### XEDAPEN IRAGANKORRAK

**Lebenengoa.**— Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari atxikitako funtzionarioak edo lan-legepeko lan-

que se regula la Integración en los Equipos de Atención Primaria de los Funcionarios Técnicos al Servicio de la Sanidad Local, adscritos a los cuerpos de médicos, practicantes y matronas, que presten sus servicios para Osakidetza-Servicio vasco de salud.

**Tercera.**— Cuando un puesto funcional hubiera sido clasificado como abierto a dos o más grupos profesionales, a los únicos efectos de la determinación del número total de efectivos por grupos profesionales, se considerará encuadrado en el grupo profesional superior y si fueran del mismo grupo de titulación, conforme al orden indicado en la Disposición Adicional 4.<sup>a</sup> de la Ley de Ordenación sanitaria de Euskadi.

**Cuarta.**— El personal fijo cuyo puesto funcional no se haya equiparado a alguno de los recogidos en el anexo I conforme a las equivalencias recogidas en el anexo II podrá optar por la adscripción a cualquier puesto funcional abierto a su grupo de titulación, siempre que reúna los requisitos necesarios para su desempeño quedando en su caso integrado en la categoría del puesto al que haya optado.

**Quinta.**— Se procederá de oficio a la adecuación de los Puestos Funcionales conforme a la clasificación aprobada en el presente Decreto de los Puestos actualmente desempeñados por el personal fijo e interino que ocupe puestos de la plantilla estructural de Osakidetza-Servicio vasco de salud, incluido el personal funcionario de carrera perteneciente a los cuerpos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi o transferido de otras Administraciones públicas.

Dicha adecuación será notificada individualmente y la misma deberá ajustarse a los criterios de clasificación regulados en la Ley de Ordenación Sanitaria y en el presente Decreto.

Si como consecuencia de la adecuación del Puesto Funcional se produjera minoración sobre las retribuciones fijas y periódicas que viniera percibiendo, quien fuera titular del puesto tendrá derecho a un complemento personal y transitorio por la diferencia, en tanto permanezca en el mismo puesto. Este complemento personal y transitorio no tendrá carácter absorbible sin perjuicio de las actualizaciones que le fueran de aplicación en sucesivos ejercicios presupuestarios.

**Sexta.**— Se faculta al Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud para que en el supuesto de que se aprueben nuevas titulaciones oficiales adecuadas para desempeñar las funciones correspondientes a alguno de los puestos funcionales creados por este Decreto apruebe su inclusión entre las titulaciones habilitantes para su desempeño siempre que no se requiera la creación de una nueva categoría.

#### DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**Primera.**— En tanto se procede a la integración en el régimen estatutario del personal funcionario o labo-

gile finkoak estatutu-araubidean sartzen diren artean, langile horiek aukera izango dute lanpostuak betetze-ko deialdietan parte hartzeko, deialdi bakoitzera-ko ze-hazten diren irizpideen arabera.

**Bigarrena.-** Estatutu-araubidean sartzen diren artean, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lanpostuen zerrendan sartuta dauden lanpostuak betetzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioek jarduneko zerbitzuan jarraituko dute jatorrizko kidegoari dagokionez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioen lan—baldintzak arautzen dituen erabakia aplikatuko zaien. Lanpostuen zerrenda hori uztailaren 28ko 325/1994 Dekretuaren bidez onartu zen, eta urriaren 18ko 402/1994 Dekretuaz eta abenduaren 24ko 301/1996 Dekretuaz aldatu. Egoera horretan dauden aldiak gradu pertsonala finkatzeko balioko du, fin-katzeko prozesuan egonez gero.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

**Lebenengoa.-** Indargabetuta geratzen da uztailaren 30eko 209/1990 Dekretuaren 2. artikuluko 2. puntu (209/1990 Dekretua: Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzurako lanean diharduten mediku, praktikante eta emaginen kidegoei atxikita dauden Toki Osasuneko Funtzionario Teknikoen Lehen Mailako Atentzioko Ekipoetan sartzea arautu zuen).

**Bigarrena.-** Indargabetuta geratzen da Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko lanpostuen zerrenda, alegia, uztailaren 28ko 325/1994 Dekretuaz onartu, eta urriaren 18ko 402/1994 Dekretuaz eta abenduaren 24ko 301/1996 Dekretuaz aldatutakoa.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko uztailaren 19an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Osasun sailburua,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRIBAR.

Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira  
aipaturiko eranskinak

ral fijo adscrito a Osakidetza-Servicio vasco de salud, éste personal podrá participar en las convocatorias para la provisión de puestos conforme a los criterios que se determinen en cada una de ellas.

**Segunda.-** En tanto se procede a la integración en el régimen estatutario, el personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma que venía desempeñando los puestos incluidos en la relación de puestos de trabajo de Osakidetza-Servicio vasco de salud aprobada por el Decreto 325/1994, de 28 de julio, y modificada por los Decretos 402/1994, de 18 de octubre y Decreto 301/1996, de 24 de diciembre permanecerá en situación de servicio activo respecto a su Cuerpo de origen y se les seguirá aplicando el Acuerdo regulador de condiciones de trabajo para el personal funcionario de la Administración General de la Comunidad Autónoma. El tiempo que permanezcan en dicha situación será computable a efectos de consolidación del grado personal que estuviera en proceso de consolidación.

#### DISPOSICIONES DEROGATORIAS

**Primera.-** Queda derogado el punto 2 del artículo 2 del Decreto 209/1990, de 30 de julio, por el que se regula la Integración en los Equipos de Atención Primaria de los Funcionarios Técnicos al Servicio de la Sanidad Local, adscritos a los cuerpos de médicos, practicantes y matronas, que presten sus servicios para Osakidetza-Servicio vasco de salud.

**Segunda.-** Queda derogada la relación de puestos de trabajo de Osakidetza-Servicio vasco de salud aprobada por el Decreto 325/1994, de 28 de julio, y modificada por los Decretos 402/1994, de 18 de octubre y Decreto 301/1996, de 24 de diciembre.

#### DISPOSICIÓN FINAL

Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de julio de 2005.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Sanidad,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRIBAR.

En Suplemento aparte se publican  
los anexos que se citan